



## **AIARAKO UDALAK 2024ko EKAINAREN 20an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

### **PRESIDENTEA**

Prudencio Otegui Echevarría jn.

### **ZINEGOTZIAK**

Karmele Población Martínez and.  
Marian Mendiguren Mendibil and.  
Iratxe Parro Uzquiano and.  
Izaskun García Aresti and.  
Gentza Alamillo Udaeta jn.  
Iñigo Pinedo Vadillo jn.  
Montse Angulo Solloa and.  
Unai Campo Arenaza jn.  
Susana Martín Benavides and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lauko ekainaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **EZ DIRA BERTARATU**

Irantzu Apodaca Sánchez and.

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko maiatzaren 23an egindako ohiko osoko bilkurako akta.**

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, 2024ko maiatzaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.



**2.- Onestea, hala badagokio, 2024. urterako Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko ekainaren 11ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxeak ikasleekin zentroan egiten duen gizarte-lana eta Aiarako Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, zentroak 2024an ikasleekin egingo dituen ekimenak eta jarduerak diruz laguntzeko.

**IKUSI DA.-** 2024ko ekainaren 11ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmenak Aiarako Udalak Amor Misericordioso de Menagarai Ikastetxearen alde egiten duen zuzeneko dirulaguntza arautzen duela, eta 2023ko udal-aurrekontuan (2024rako luzatua) Udalarik hitzarmena sinatzeak ekartzen dion gastua hartzeko kreditu nahiko eta egokia duen aurrekontu-aplikazio izenduna dagoela.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Amor Misericordioso Ikastetxearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, zentroak 2024an ikasleekin egingo dituen ekimenak eta jarduerak diruz laguntzeko. Horren bidez, 2.000 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zaio. Honela dio, hitzez hitz:

**AIARAKO UDALAREN ETA MENAGARAIKO AMOR MISERIKORDIOSO IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2024. URTEA**

*Arespalditzan, 2024ko ekainaren **\*\*e(a)n**.*



### **HAUEK BILDU DIRA**

*Alde batetik, PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA jauna (NAN zk.: 14.925.513-P), Ayala-Aiarako Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren izenean, eta Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin, NAIARA LAZPITA MARCOSEkin (NAN zk.: 45676325G), zeinak egintzaren fede ematen duen.*

*Bestetik, ELISA PELAZ BAÑOS Andrea, adinez nagusia (NAN zk.: 14.915.462-P), Menagaraiko AMOR MISERICORDIOSO ikastetxeko zuzendaria.*

### **ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrenak, AMOR MISERICORDIOSO ikastetxearen (IFK: R-0100129-F) izenean eta hura ordezkatzuz. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen du haren nortasuna eta ordezkartza, eta aktaren fotokopia aurkeztu du. Bertan, Ikastetxeko zuzendaria aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

***I.-** Aiarako Udalak, AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak egiten duen gizarte-lana kontuan hartuta, besteak beste, hitzarmen honen bidez jardungo du. 2024an egingo dituen jarduerak garatzeko emango zaion urteko dirulaguntza arautzen du.*

***II.-** Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetz*a-hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, *bi aldeek lankidetz*a-hitzarmen hau formalizatu dute. *Honako hauek bete beharko dituzte:*

### **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** *Aiarako Udalak hitzarmenari begira duen xedea AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak urtean zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea da, ikasleen garapen pertsonala errazteaz gain haien bizi-kalitatea hobetzen baitute. Hitzarmen honen kargura diruz lagunduko diren jarduerak honako hauek izango dira:*



- *Ikasleen bizitza eta hezkuntza-jarduerak hobetu eta erraztuko dituzten altzairu, tresna edo lanabesak erostea.*
- *Ikasleen integrazioaren eta garapen pertsonalaren alde egingo duten kultura- eta aisialdi-jarduera edo ekitaldiak burutu edo antolatzea.*

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak gauzatuko duen sustapen-ekimenaren edukia **AMOR MISERICORDIOSO** Ikastetxeak 2024. urtean zehar egingo dituen eta aurreko atalean deskribatutako jardueren gastuen dirulaguntzan zehazten da.

**HIRUGARRENA.-** Administrazio horrek jarduerak sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza aurretik deskribatutako jardueren gastuei aurre egiteko erabiliko da.

*Dirulaguntza jarduerak egitean sortutako gastuen arabera kalkulatu da, eta Ikastetxeak kontzeptu horietarako beste dirulaguntza posible batzuetatik lortzen dituen diru-sarrerak deskontatuko dira.*

*Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza urtean gehienez ere BI MILA EUROKOA (2.000,00 €) izango da.*

**LAUGARRENA.-** Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (gehienez ere 2.000 €) adierazitako zenbatekoari dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarreragingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagirien kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek aurka egiten ez badute. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.*
- *Udal-dirulaguntzaz gain, jasotako diru-sarrera guztiak aitortu beharko dira (AFArek dirulaguntza, eta egongo balira, KONTRATU HONEKIN DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA ETA/EDO MATERIALARI dagozkion beste batzuk).*
- *Diruz lagundutako jardueren edo programen gastuen eta diru-sarreraren balantzea.*
- *Programaren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio- edo azalpen-fitxa eta hura egin izanaren zinpeko aitortpena, eta/edo, hala badagokio, dirulaguntza honen bidez eskuratu diren altzarien, tresnen edo lanabesen deskribapena).*
- *Gastua justifikatzen duten fakturen eta ordainketa-dokumentuen kopia.*



*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.*

*2025eko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza emango, eta hasiera emango zaio aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

**BOSGARRENA.-** *Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak, salbuespenak salbu, diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2024. urtea.*

**SEIGARRENA.-** *Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du, hitzarmen hau onetsi eta sinatzean. Gainerako % 20a behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzat jotzen duen informazioa.*

**ZAZPIGARRENA.-** *AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso beharko du, eta irudien eta hizkera ez-sexistaren erabilera bermatu beharko du.*

**ZORTZIGARRENA.-** ***Datuen babesa.** AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus); edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.*

**BEDERATZIGARRENA.-** *AMOR MISERICORDIOSO Ikastetxeak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*



*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 folioetan, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.*

*ALKATE-UDALBURUA,*

*IDAZKARIA,*

*Stua.- Prudencio Otegui Echevarría*

*Stua.- Naiara Lazpita Marcos.*

*Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.*

*AMOR MISERICORDIOSO IKASTETXEKO ZUZENDARIA,*

*Stua.- Elisa Pelaz Baños.*

### **I. ERANSKINA**

***Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.***

*Udal honek, eskura dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten ziurtagiriei buruz, salbu eta behean sinatzen duenak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.*

***Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:***

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*

*Aurka egitearen justifikazioa*

*Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---



Data: \_\_\_\_\_

Elkartea: \_\_\_\_\_

Ordez kariaren izena: \_\_\_\_\_

Stua.- \_\_\_\_\_

*Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.*

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

**HIRUGARRENA.-** Amor Misericordioso Ikastetxeari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sina dezan.

### **3.- Onestea, bidezkoa bada, 2024rako luzatutako 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko ekainaren 11ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2023ko ekitaldiari dagozkionak jasotzen dituen, 2024rako luzatu zen, aurrekontua luzatzeko akordioa zela eta.

**AINZAT HARTU DA.-** Plan Estrategiko horren I. eranskinean kultura eta kirol arloaren dirulaguntzen jarduera banakatzen da.

**AINZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa udalerrian kirola bultzatzeko, eta, bereziki, Boloen kirola.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), **ERABAKI DU:**



LEHENENGOA.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea (kultura eta kirol arloaren dirulaguntzen jardura), eranskin horretan erakunde eta/edo pertsona hauei zuzeneko dirulaguntza ematea gehituz:

- Zuzeneko dirulaguntza Asociación Club Deportivo de Bolos Lekubatxe elkarteari, Luaiondoko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeko, 4.000 euroko zenbatekoan 2023ko udal-aurrekontuaren (2024rako luzatua) 341.481.001 aurrekontu-aplikazioaren kargura, kreditu gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera”.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Asociación Aiarateam AT Sport Kirol Kluba elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Martxa antolatzeko.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko ekainaren 11ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa udalerriko kultura- eta kirol-jarduerak zaindu eta sustatzeko.

**IKUSI DA.-** AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAK aurkeztutako eskaera; bertan adierazten du Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxa bat antolatzen ari dela.

**AINZAT HARTU DA.-** 2023rako (2024rako luzatua) udal-aurrekontuaren 341.481001 partidaren kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak honako ERABAKI hau hartzea proposatu da:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxaren antolaketa finantzatzeko. Hitzarmenaren testua honako hau da:





**“AIARAKO UDALAREN ETA AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKADI XCM TXAPELKETA, ARABA XCM  
TXAPELKETA ETA BTT HERRI MARTXA ANTOLATZEKO”.**

*Arespalditzan, 2024ko ekainaren **\*\***(e)(a)n.*

**HAUEK BILDU DIRA**

*Alde batetik, **PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA JAUNA**, adinez nagusia, **AIARAKO UDALEKO** alkate-udalburua.*

*Beste alde batetik, **ELEDER PORTILLO BERAZA JAUNA**, adinez nagusia (NAN zk.: 78925900-C), **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA** elkartearen izenean (IFK zk.: G01587229).*

**ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrenak, **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA** elkartearen izenean eta horren ordezkartzan.*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

***AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA** Euskadi XCM Txapelketa, Arabako XCM Txapelketa eta mendi-ziklismoko BTT herri-martxa antolatzen ari dela. Horiek guztiak Aiaran, 2024ko ekainaren 22an egingo dira.*

*Aiarako Udalak interesa du udalerrian kirola sustatzen laguntzean; beraz, bi aldeek honako hau erabaki dute:*



### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea**

*Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren formalizatzea **AIARAKO UDALAREN** eta **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA** elkartearen artean, Euskadi XCM Txapelketa eta Araba XCM Txapelketa eta mendi-ziklismoko BTT herri-martxa antolatzeko. Horiek guztiak 2024ko ekainaren 22an egingo dira.*

### **BIGARRENA.-**

***AIARAKO UDALAK** gauzatuko duen sustapen-jardueraren edukia zehaztea da 2024ko ekainaren 22an egingo diren Euskadi XCM Txapelketa eta Araba XCM Txapelketa eta mendi-ziklismoko BTT herri-martxa antolatzean sortutako gastuen zati txiki bat bideratutako dirulaguntzan.*

*Jardueren antolatzaileak osasun-segurtasuneko arloan indarrean dagoen araudi osoa zehatz-mehatz bete beharko du eta hori betetzen dela bermatu beharko du. Beraz, Aiarako Udala ez da inolaz ere Txapelketetan eta Martxan egondako gorabeherengatik sortutako kalteen erantzule izango.*

### **HIRUGARRENA.-**

*Lankidetzaren hitzarmen honi dagokion udal-dirulaguntza **4.200,00 eurokoa** da.*

### **LAUGARRENA.-**

*Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:*

*Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Eta gainerako % 20a behin hitzarmenaren BOSGARREN klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzat jotzen duen informazioa.*

***Ordaindu baino lehen,** Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, halakorik ezean, Udalak dagokion erakundeei informazio hori eskatzeko baimena aurkeztu beharko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzat jotzen duen informazioa.*

### **BOSGARRENA.-**

***DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA** Aiarako Udalean aurkeztu beharko da **2025eko urtarrilaren 31** baino lehen. Edonola ere, gastuak dirulaguntza jaso den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira, hau da, 2024an.*



*Eskatutako justifikazioa ez bada adierazitako epean aurkezten, dirulaguntza ukatuko da eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

- a) *Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira. Inskripzioetatik lortutako kuoten aitortpena barne.*
- b) *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarreragingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagirien kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.*
- c) *Jardueraren garapenari lotutako honako dokumentu hauek:*
  - *Egindako jarduerari buruzko memoria.*
  - *Jardueraren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea, beste erakunde publiko eta zuzenbide pribatuko egon daitezkeen dirulaguntzak barne hartuta. Gainfinantzaketa egotekotan, emandako dirulaguntza murriztu egingo da dagokion zenbatekoan*
    - *Aitortutako gastuen justifikazio-fakturak, horiek igortzeko legez ezarritako baldintzak bete behar dituztenak. Dagokion fakturaren ordainketa-egiaztagiria atxiki beharko da.*

### **SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena**

*Hitzarmena indarrean egongo da 2024ko abenduaren 31ra arte.*

**ZAZPIGARRENA.-** *Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus); edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.*



### **ZORTZIGARRENA.-**

*AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA* elkarteak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso beharko du, eta irudien eta hizkera ez-sexistaren erabilera bermatu beharko du.

### **BEDERATZIGARRENA.-**

*AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA* elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 folioetan, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.*

*ALKATE-UDALBURUA,*

*IDAZKARIA,*

*Stua.- Prudencio Otegui Echevarría jn.    Stua.- Naiara Lazpita Marcos and.*

*Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua.*

*AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN PRESIDENTEA,*

*Stua.- Eleder Portillo Beraza.*

### **I. ERANSKINA**

***Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.***

*Udal honek, eskura dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten ziurtagiriei buruz, salbu eta behean sinatzen duenak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.*



***Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:***

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*

*Aurka egitearen justifikazioa.*

*Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---

*Data:* \_\_\_\_\_

*Elkartea:* \_\_\_\_\_

*Ordez kariaren izena:* \_\_\_\_\_

*Stua.-* \_\_\_\_\_

*Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.*

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

**HIRUGARRENA.-** AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBARI akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sina dezan.

**5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Babio Ikasleen Guraso Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko ekainaren 11ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.



Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotzietatik aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa haurrek kultura- eta kirol-jarduerak egin ditzaten zaindu eta sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Babio Ikasleen Guraso Elkartearen arteko 2024ko lankidetzaren proposamena, eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiteko gastuak finantzatzeko.

**AINZAT HARTU DA.-** 2023rako (2024rako luzatua) udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzietatik aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Babio Ikasleen Guraso Elkartearen arteko 2024ko lankidetzaren proposamena onestea, eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiteko gastuak finantzatzeko. Horren bidez 1.420 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio. Hitzarmenaren testua honako hau da:

***AIARAKO UDALAREN ETA BABIO IKASLEEN GURASO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. 2024. URTEA***

*Arespalditzan, 2024ko ekainaren <sup>\*\*</sup>(e)(a)n.*

***HONAKO HAUEK BILDU DIRA***

*Alde batetik, Aiarako Udaleko PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 14.925.513 P), Aiarako Udaleko Naiara Lazpita Marcos idazkariaren laguntzarekin, egintzaren fede ematen duena.*

*Beste aldetik, IRAIDA SAENZ DE LA FUENTE BLANCO and., adinez nagusia (NAN zk.: 30.633.334-W; helbidea: Etxebarriaur kalea 8, Amurrio), "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkartearen presidentea.*



## ***ESKU HARTZEN DUTE***

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartizan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrenak, aipatutako elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen du haren nortasuna eta ordezkartiza, eta aktaren fotokopia aurkeztu du. Bertan, "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteko presidentea aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

## ***HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:***

*I.- Aiarako Udalak, udalerrriaren gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak babestu eta sustatzeko interes publikoari erantzuteko, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetz*a emango dizkio "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteari, horrek bere helburuak lor ditzan.

*II.- Udalak interes handia du jarduera osagarriak eta eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiten jarraitu eta sustatzeko.*

*III.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak gizarte-, kultura- eta kirol-lan handia egiten duela udalerrian, batez ere gazteen artean kultur- eta kirol-jarduera handia sortzen duen erakundea delako eta gazteen eta familien artean gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak egitea sustatzen duelako, ikastetxearen ohiko jardueraren osagarri.*

*IV.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak beti adierazi du Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko interes handia, eta gazteekin eta haien familiekin gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak antolatze*ko.

*V.- Aiarako Udalak, bere sustapen-jardueraren barruan, udalerrian gazteentzako eta haien familientzako kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea erabaki du eta sustapen hori hitzarmen honen bidez artikulatzea erabaki du. Hitzarmenak Zarobe Institutuan 2024. urtean egindako eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza arautzen du, ikastetxearen jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.*

*VI.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetz*a-hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute. Honako hauek bete beharko dituzte:



## **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak Zaraobe Institutuaren eskolaz kanpoko gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak eta jarduera-osagarria sustatzea, baita familiei zuzendutako prestakuntza ere, "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkartearen bidez.

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak gauzatuko duen sustapen-ekimenaren edukia egingo den eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera-osagarriak dakartzan gastuen zati bati arreta ematean eta dirulaguntza ematean datza.

*Jarduera egiteko beharrezkoa den materiala elkartearen kontura izango da.*

*2024ko ikasturterako gehieneko dirulaguntza 1.420 eurokoa izango da.*

**HIRUGARRENA.-** Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialari egokituko zaio. Hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez argitaratu eta jakinaraziko du, 2024an.

**LAUGARRENA.-** Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du, hitzarmen hau onetsi eta sinatzean. Eta gainerako % 20a behin hitzarmenaren hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztuta ordainduko da.

**BOSGARRENA.-** Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 1.420 €) adierazitako zenbatekoari dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Diruz lagunduko den jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena).
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-agiriak aurkeztuta.

*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.*





*Justifikazio hori aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da. Aipatutako epe horretan ez bada aurkeztu hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza emango, eta hasiera emango zaio aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Jarduera honetarako dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

**SEIGARRENA.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso beharko du, eta irudien eta hizkera ez-sexistaren erabilera bermatu beharko du.

**ZAZPIGARRENA.-** "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

**ZORTZIGARRENA.-** Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 folioetan, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.*

ALKATE-UDALBURUA,  
Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,  
Stua.: Naiara Lazpita Marcos.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

“GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES” ELKARTEAREN  
PRESIDENTEA,

Stua.: Iraidá Sáenz de la Fuente Blanco and.



## I. ERANSKINA

**Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.**

Udal honek, eskura dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten ziurtagiriei buruz, salbu eta behean sinatzen duenak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

**Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:**

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Aurka egiten diot Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriari buruzko kontsulta egiteari.

Aurka egitearen justifikazioa

Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

---

---

---

---

Data: \_\_\_\_\_

Elkartea: \_\_\_\_\_

Ordezkariaren izena: \_\_\_\_\_

Stua.- \_\_\_\_\_

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

**HIRUGARRENA.-** “GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES” elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sina dezan.



**6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko ekainaren 11ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa haurrek kultura- eta kirol-jarduerak egin ditzaten zaindu eta sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko 2024ko lankidetzaz hitzarmenaren proposamena, eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiteko gastuak finantzatzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2024rako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko 2024ko lankidetzaz hitzarmena onestea, eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiteko gastuak finantzatzeko. Horren bidez 2.200 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio. Hitzarmenaren testua honako hau da:

**AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO  
ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. 2024. URTEA**

*Arespalditzan, 2024ko ekainaren **\*\*(e)(a)n**.*

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

*Alde batetik, Aiarako Udaleko PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 14.925.513 P), Aiarako Udaleko Naiara Lazpita Marcos idazkariaren laguntzarekin, egintzaren fede ematen duena.*



*Beste aldetik, ANA CRISTINA MARTINEZ SOLAEGI and., adinez nagusia (NAN zk.: 44.975.776-N; Aiarako bizilaguna eta egoitza du Soxon, 4-1. ezk. Soxo (Aiara)), "Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen" presidentea.*

### **ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrenak, aipatutako elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen du haren nortasuna eta ordezkartza, eta aktaren fotokopia aurkeztu du. Bertan, "Etxaurren GE" elkarteko presidentea aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzeta-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

*I.- Aiarako Udalak, udalerrriaren kultura- eta kirol-jarduerak babestu eta sustatzeko interes publikoari erantzuteko, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetzeta emango dizkio guraso-elkarteari, horrek bere helburuak lor ditzan.*

*II.- Udalak interes handia du eskola-orduetatik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) egiten jarraitu eta sustatzeko.*

*III.- "Etxaurren GE" elkarteak gizarte- eta kirol-lan handia egiten duela udalerrian, batez ere kultur- eta kirol-jarduera handia sortzen duen erakundea delako eta haurren artean arte- eta kirol-jarduerak egitea sustatzen duelako, ikastetxearen ohiko jardueraren osagarri.*

*IV.- "Etxaurren GE" elkarteak beti adierazi du interes handia Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko, haurrekin zerikusia duten kultur- eta kirol-jarduerak antolatzerako orduan.*

*V.- Aiarako Udalak, bere sustapen-jardueraren barruan, udalerrian haurrentzako kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea erabaki du eta sustapen hori hitzarmen honen bidez artikulatzea erabaki du. Hitzarmenak Etxaurren Ikastolan 2024. urtean egindako eskolaz kanpoko jardueren gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza arautzen du.*

*IV.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatu dute. Honako hauek bete beharko dituzte:*



## **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolan eskolaz kanpoko kultura- eta kirol-jarduerak eta jarduera-osagarria sustatzea, "Etxaurren GE" elkartearen bidez, baita familiei zuzendutako prestakuntza ere, "Etxaurren GE" elkartearen bidez.

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak gauzatuko duen sustapen-ekimenaren edukia egingo den eskolaz kanpoko jarduerak dakartzan gastuen zati bati arreta ematean eta dirulaguntza ematean datza.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan sartuko dira langileak kontratatuzko gastuak, diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiten dituzten enpresen gastuak, jarduerak egiteko materiala (baldin eta guraso-elkartearen jabetzakoa bada hurrengo ikasturteetan erabiltzeko, edo jarduera egiteko material suntsikorra bada), eta materiala kontserbatzeko beharrezko altzariak.

2024ko ikasturterako gehieneko dirulaguntza 2.200 eurokoa izango da.

**HIRUGARRENA.-** Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialari egokituko zaio. Hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez argitaratu eta jakinaraziko du, 2024an.

**LAUGARRENA.-** Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du, hitzarmen hau onetsi eta sinatzean, eta aurretik Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Eta gainerako % 20a behin hitzarmenaren hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztuta ordainduko da.

**BOSGARRENA.-** Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 2.200 €) adierazitako zenbatekoari dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitorpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Diruz lagunduko den jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena).
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-agiriak aurkeztuta.



*Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.*

*Justifikazio hori aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da. Aipatutako epe horretan ez bada aurkeztu hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Jarduera honetarako dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

**SEIGARRENA.-** "Etxaurren GE" elkarteak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso beharko du, eta irudien eta hizkera ez-sexistaren erabilera bermatu beharko du.

**ZAZPIGARRENA.-** "Etxaurren GE" elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 folioetan, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.*

**ZORTZIGARRENA.-** Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Stua.- Prudencio Otegui Echevarría jn.

Stua.- Naiara Lazpita Marcos.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN PRESIDENTEA,

Stua.- Ana Cristina Martínez Solaegi and.



## **I. ERANSKINA**

**Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.**

Udal honek, eskura dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten ziurtagiriei buruz, salbu eta behean sinatzen duenak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

**Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:**

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.

Aurka egitearen justifikazioa.

Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

\_\_\_\_\_

Data: \_\_\_\_\_

Elkartea: \_\_\_\_\_

Ordez kariaren izena: \_\_\_\_\_

Stua.- \_\_\_\_\_

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

**HIRUGARRENA.-** Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sina dezan.



**7.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena, Udalbatzak kreditu gehigarriaren 4/2024 espedientea onesteko, bidezkoa bada.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak aldez aurretik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gai-zerrendan, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi ezean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Puntu honi buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA. - 2023ko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako Diruzaintza-gerakinaren zati bat erabili beharra, 2024rako luzatutako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2025era arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA. - Kontu-hartzaitzako organoak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatzen du) jasotakoaren bat etorriz. Txostena Udalbatzari aurkeztuko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera ezagut dezan.

AINTZAT HARTU DA. - Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), **ERABAKI DU**:

Lehenengoa. - Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:





PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA/€
323.622.022	HAINBAT OBRA ETXAURREN HAURRESKOLAKO PATIOAN	27.947,17 €
323.622.023	ETXAURREN IKASTOLAKO PATIOAN OBRAK EGITEKO ORDAINSARIAK	7.100 €
323.622.024	PATIOAK INKLUSIBO BIHURTZEKO OBRAK EGITEKO ORDAINSARIAK	10.000 €

ZENBATEKOA GUZTIRA: 45.047,17 €

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarreraren partidak edo erabili beharreko Diruzaintza-gerakina:

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GERAKINA	45.047,17 €.
	GUZTIRA .....	45.047,17 €.

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarreraren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena. - Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hirugarrena. - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da, eta onartu edo baztertu egin beharko dira.

**8.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena, Udalbatzak kredituen judizioz kanpoko 2/2024 aintzatespen-espedientea onesteko, bidezkoa bada.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gai-zerrendan, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi ezean.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Puntu honi buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Kredituen judizioz kanpoko 2/2024 aintzatespen-espedientea.

**IKUSI DA.-** Idazkari kontu-hartzailearen 2024ko ekainaren 17ko txostena.

**AINZAT HARTU DA.-** Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 176. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Kredituen judizioz kanpoko 2/2024 aintzatespen-espedientea onestea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera, 2024 honen aurreko ekitaldian hartutako betebeharra baita, ordaindu ahal izateko, Udalak bidegabeki aberastea saihestuz.

- FAK/2023/05-000074 zenbakidun faktura, 2023-05-31koa, “Aiaraldea Kooperatiba Elkarte”rena, 1.995,41 eurokoa (BEZa barne), 2023ko aurrekontuko (2024rako luzatua) 920.226031 partidaren kontura ordainduko dena.

### **9.- EH-Bilduk aurkeztutako mozioa, Solaria – Zierbena Solar 2., 3. eta 4. proiektu fotovoltaikoei eta ebakuazio-azpiegiturei buruzkoa.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gai-zerrendan, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi ezean.



Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz mozioaren edukia aurkeztu du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, hurrengo puntuan azalduko duten zuzenketa bat aurkeztu dutelako.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi jaunak (AIARA BATUZ) hartu du hitza mozio bateratu bat egiteko aukera aztertzeko eskatuko zutela esateko, baina ikusi zen EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa desberdina dela, zabalagoa da, eta proiektuak eragin handia du Aiaran. Esan du zaila iruditzen zaiola mozio bateratu batera iristea.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 (3 EH BILDU + 2 AIARA BATUZ).  
ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- EH-BILDUK aurkeztutako mozioa, Solaria – Zierbena Solar 2., 3. eta 4. proiektu fotovoltaikoei eta ebakuazio-azpiegiturei buruzkoa.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo soilez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- EH-BILDUK aurkeztutako mozioa onestea, Solaria – Zierbena Solar 2., 3. eta 4. proiektu fotovoltaikoei eta ebakuazio-azpiegiturei buruzkoa.

## ehbildu

### ***SOLARIA-ZIERBENA SOLAR 2, 3 ETA 4 PROIEKTU FOTOVOLTAIKOEN ETA EBAKUAZIO-AZPIEGITUREN INGURUKO MOZIOA***

#### **ZIOEN AZALPENA**

*Solaria enpresak aurkeztutako «Solaria Zierbena Solar 2, 3 eta 4» planta fotovoltaikoek 310.000 eguzki-panel eta nekazaritza balio handiko 373 hektarea okupatzea aurreikusten du Erriberabeitia, Iruña Oka, Gasteiz eta Zigoitiko lurretan.*



*Enpresa horrek Zierbenan 1800 MWtako energia elektrikoa husteko baimena dauka eta Araba eta Bizkaiko hainbat udalerrri zeharkatzen dituen 101 kilometroko goi-tentsioko linea proiektatu du, energia ahalik eta hurbilen ebakutzeko araua urratuz.*

*Hala, Solariak aurkeztutako proiektu honek ez du trantsizio energetiko bidezko, orekatu eta ordenatu batekin bat egiten.*

*Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkezten du EH Bildu Aiarako Udal Taldeak, osoko bilkurak eztabaidatu eta onartu dezan:*

### **MOZIOA:**

- 1. Aiarako Udalak, momentu honetan diseinatuta dauden moduan egonda, Solaria-Zierbena Solar 2, 3 eta 4 proiektu fotovoltaikoaren eta proiektuarekin lotura duten ebakuazio-azpiegituren aurrean, bere kontrakotasuna adierazten du.*
- 2. Aiarako Udalak Solaria Eguzki Sorkuntza enpresari eskatzen dio Solaria-Zierbena Solar 2, 3 eta 4 proiektua birmoldatu dezala Balio Estrategiko Handiko nekazaritza-eremuak bertatik kenduz eta Zierbenara proiektatutako ebakuazio-azpiegiturak eraikitzea baztertu eta gertuko ebakuazio-lotuneetan alternatibak bilatuz.*
- 3. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio erronka klimatikoaren eta trantsizio eko-sozialaren helburuan agente proaktiboa izan dadila, lurraldean egon daitezkeen parke fotovoltaikoen proiektu ezberdinen aurrean Balio Estrategiko Handiko nekazaritza-eremuak defendatuz.*
- 4. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio proiektu hauek zuzenean eragindako herritar, toki-erakunde eta eragile sozialekin lan mahai bat osatu dezala, gehienez hilabeteko epean, eragindako guztiei informazioa eta euren interesen defentsarako aholkularitza ematearren eta elkarlanerako eta partaidetzarako espazioak sortzeko.*
- 5. Airako Udalak eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta MITECOri lehenetsi dezatela energia sortzeko instalazioak kokatzea ebakuazio-lotuneetatik ahalik eta gertuen.*
- 6. Airako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honetan jasotako edukiak aintzat hartu eta bere eskuan dagoen guztia egin dezan Solaria-Zierbena 2, 3 eta 4 egitasmoa, egun diseinatuta dagoen moduan, garatu ez dadin.*

**Jarraian,** Alkateak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalbatzaren Osoko Bilkurari aurkeztu zaiola Solaria – Zierbena Solar 2., 3. eta 4. proiektu fotovoltaikoei eta ebakuazio-azpiegiturei buruz EH BILDUK aurkeztutako mozioari EAJ-PNVk aurkeztutako zuzenketa sartzeko proposamena.



Gai hau osoko bilkura honetan premiaz eztabaidatu eta bozkatu behar da, aurreko puntuan onetsitako mozioaren zuzenketa bati buruzko eztabaida ez atzeratzeagatik, ez bailuke zentzurik izango.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

**10.- EAJ-PNVk Solaria – Zierbena Eguzki Eremuko 2, 3 eta 4 proiektu fotovoltaikoei eta ebakuazio-azpiegiturei buruzko EH BILDUREN mozioari egindako zuzenketa.**

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko zuzenketaren goiburuan dagoeneko Solaria aipatzen du; argi geratzen da proiektu horri buruz ari direla. Aurkeztutako zuzenketa azaldu du, adieraziz aukera bila dadila eskatu dela, eragin txikiagoa izango duen tokietan instala dadin. Zuzenketak honela dio, hitzez hitz:



**SOLARIA – ZIERBENA EGUZKI  
EREMUKO 2, 3 ETA 4 PROIEKTU  
FOTOVOLTAIKOEI BURUZKO  
MOZIOAREN ZUZENKETA**

1.- Aiarako Udalak onartzen du trantsizio energetiko premiazkoa dela, Arabako ekonomiaren beharrezko deskarbonizazioa eta elektrifikazioa laguntzeko.

2.- Aiarako Udalak apustu egiten du nekazaritza- eta natura-ingurunearen kontserbazioa kontuan har dadin berriztagarriak ezartzerakoan, nekazaritza eta basogintzako balio eta ingurumen-hauskortasun handieneko eremuak doituz, integratuz eta errespetatuz, bai eta gure landa-biztanleriaren ongizatea edo sosegua ere, inpaktu larriak edo kritikoak saihestuz maila guztietan.



**ENMIENDA MOCIÓN SOBRE  
LOS PROYECTOS FOTOVOLTAICOS  
SOLARIA- ZIERBENA SOLAR 2, 3 Y 4  
INFRAESTRUCTURAS DE  
EVACUACIÓN**

1.-El Ayuntamiento de Ayala reconoce la necesidad de una transición energética urgente que acompañe la necesaria descarbonización y electrificación de la economía alavesa.

2.- El Ayuntamiento de Ayala apuesta por que la conservación del medio agrario y natural, sea tenida en cuenta en la implantación de renovables, siendo ajustada, integrada y respetuosa con las zonas de mayor valor agroforestal y fragilidad ambiental, así como el bienestar o sosiego de nuestra población rural, evitando impactos graves o críticos a todos los niveles.



3.- Aiarako Udalak MITERDri eskatzen dio, aurreikusteko moduko arau-esparru egonkor baten bidez, ordainsari-sistema elektrikoa sinplifikatzeko, banaketa- sarea malgarritzeko, kontsumotik gertu dauden sortze-parkeen konexioak lehenesteko eta energia-eraginkortasuna sustatzeko, sarera sartzeko eta konektatzeko prozesuak arinduz.

4.- Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Planean, lehenasuna eman dakiola lurzoru degradatu eta ez-produktiboen okupazioari, bai eta parke berriztagarrien instalazioetarako lurzoru publikoei ere, hori guztia ingurumen-inpaktu txikiagoa eta balio agroekologiko handiko lurzorua ez okupatzea kontuan hartuta.

5. Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen dio lehenasuna eman diezaiola prestatzen ari den Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Plana izapidetzeari, eta aukera eman dezala jatorri berriztagarriko energia- aprobetxamendurako arestian adierazitako irizpideen arabera kokalekurik egokienak identifikatu, hautatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan txertatzeko.

3.- El Ayuntamiento de Ayala insta al MITERD, para que a través de un marco regulatorio estable y predecible, simplifique el sistema retributivo eléctrico, malle la red de distribución, priorice las conexiones de los parques de generación cercanos a su consumo y promueva la eficiencia energética, agilizando los procesos de acceso y conexión a la red.

4.- El Ayuntamiento de Ayala insta al Gobierno Vasco para que en el PTS de EERR se priorice la ocupación de suelos degradados e improductivos, así como los suelos públicos para las instalaciones de parques renovables, todo ello teniendo en cuenta el menor impacto medioambiental y la no ocupación del suelo de alto valor agroecológico.

5.- El Ayuntamiento de Ayala solicita al nuevo Gobierno Vasco que priorice la tramitación del Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables que se está elaborando, permitiendo identificar, seleccionar e integrar en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, los emplazamientos más idóneos de acuerdo con los criterios anteriormente señalados para el aprovechamiento energético de origen renovable.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza aipatzeko bere taldeak uste duela zuzenketa oso irekia dela, berriaz adierazi behar dutela zehazki Solariaren proiektuari buruz ari direla.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du mozioak zehatzagoa izan beharko lukeela, eta berriaz Solariari buruz aritu beharko litzatekeela.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

**ALDEKO BOTOAK: 5 EAJ-PNV**

**AURKAKO BOTOAK: 5 (3 EH BILDU + 2 AIARA BATUZ).**

Alkatearen kalitatezko botoaren bidez, zuzenketa baztertu da.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



**11.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea  
(2024/281 eta 2024/347 zenbakien bitarteko Alkatetzaren Dekretua erantsi da, biak barne).**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/281 eta 2024/347 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

<b>Zk.</b>	<b>ALKATETZAREN DEKRETUA</b>
2024-281	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.C. Somocurcio Lópezi Etxaurren Ikastolako hormigoiko pitzadurak eta teilatu-hegaleko aurrealdea konpontzeko obra kontratu txikia adjudikatzea.
2024-282	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartea.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2024ko apirila.
2024-283	ALKATETZAREN DEKRETUA.- G.A.L.- Zerbitzuetako langilearen plaza aldi baterako ordeztzeko lan-poltsak eratzen dituen 2023/717 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebaztea.
2024-284	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alday Fundazioa. EALZetako kudeaketa-gastuetarako dirulaguntza ordaintzea, 2024ko apirila.
2024-285	ALKATETZAREN DEKRETUA.- E.V.P.- Menagaraiko Billakundi auzoko 1. zenbakiko baserria zati batean birgaitzeko obra hasteko baimena ematea.
2024-286	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Kultura, Kirolak, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Informazio Batzordearen presidentzia eskuordetzea.
2024-287	ALKATETZAREN DEKRETUA.- F.C.M.-Lankidetzaren baimentzea, udal-arkitektoari lursailerako sarbidea ahalbidetzeko, ikuskapen-bisita egiteko.
2024-288	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Aiarako Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitza lanpostua estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioarekin betetzeko ohiko lehiaketarako oinarri espezifikoko bosgarren eta seigarrena kentzea.
2024-289	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Kreditu gehigarriaren espedientea onestea, alkatea, 5/2024.
2024-290	ALKATETZAREN DEKRETUA.- A.B.- Arkitekturako zerbitzu profesionalen zerbitzu egikaritzeko epea luzatzea.
2024-291	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Erregistratutako fakturen F/2024/4 zerrenda onestea.
2024-292	ALKATETZAREN DEKRETUA.-Araudi, S.L.P.- “Solaria Zierbena solar 2”, “Solaria Zierbena solar 3” eta “Solaria Zierbena solar 4” eguzki-instalazio fotovoltaikoak jartzeko proiektuari eta ingurumen-eraginaren azterketari egingo zaizkien alegazioak idazteko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzea.



2024-293	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.G.G.- Dokumentazio gehigarria eskatzea, eskatutako udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.
2024-294	ALKATETZAREN DEKRETUA.- “Bertsolaritza Ikastetxean” programaren bertsolaritzako prestakuntza zerbitzua kontratatzeke espedientea onestea.
2024-295	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkatetza-eskumenak lehen alkateordeari eskuordetzea, Prudencio Otegui Echevarriak eskatutako udalaren obra-lizentzia emateko.
2024-296	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- El Fontarrón bidea konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-297	ALKATETZAREN DEKRETUA.- MA. ME. eta M.A.H.- Lantenon eraikinaren hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.
2024-298	ALKATETZAREN DEKRETUA.- P.O.E.- Luiaondoko eraikinean teilak birjarri eta fatxada konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-299	ALKATETZAREN DEKRETUA.- D.M.C.- Erbin zaldi-azientarako korralea egiteko egikaritutako obrak legezkatzea eta obrak amaitzeko obra-lizentzia ematea.
2024-300	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Erretes Llanteno Administrazio Batzarra.- Erretes Lantenoko errota eskatutako obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.
2024-301	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Kultura- eta kirol-ikastaroak eman eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onestea.
2024-302	ALKATETZAREN DEKRETUA.-Elkarkidetza Pentsioak.- 2024ko maiatzeko faktura-likidazioa onestea.
2024-303	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Promociones Valle de Ayala, SL.- Etxaurren Ikastolako estalkian kalteak aurkitu eta erretenak konpondu eta garbitzeko zerbitzuen kontratu txikiaren enpresa adjudikaziodunari eskatzea egindako lanak egiaztatzeke argazkiak aurkez ditzala.
2024-304	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Onyx-Goen SLU- Udal-eraikinetan instalazio fotovoltaikoak jartzeko bi proiektu idazteke zerbitzuaren kontratuko enpresa adjudikaziodunari errekeritzeke 10 eguneko epean proiektu horiek aurkez ditzala.
2024-305	ALKATETZAREN DEKRETUA.- F.J.B.U. Aparkatzeko txartela ordezteke, narriatzeagatik.
2024-306	ALKATETZAREN DEKRETUA.-Kexaako Ibaguen auzoko 3. zenbakiko etxebizitzaren erabileraren hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.
2024-307	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Elder Medio Ambiente SLL. Zerbitzua amaitzeagatik jarritako behin betiko fidantza itzultzea.
2024-308	ALKATETZAREN DEKRETUA.- I.T.A. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-309	ALKATETZAREN DEKRETUA.- V.B.I. TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.





2024-310	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkatetzaren eskumenak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.
2024-311	ALKATETZAREN DEKRETUA.- F.P.G.- Menagaraiko Iturribarria auzoko 7. zenbakiko etxea birgaitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria aurkez dezala eskatzea.
2024-312	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Arabako Foru Aldundia.- Kexaako monumentu-multzoko 1. eraikineko egitura, estalkia eta fatxada finkatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-313	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Udalkideen ekarpen ekonomikoa onestea, 2024ko maiatza.
2024-314	ALKATETZAREN DEKRETUA.- 2023/2024 aldirako EEPko langileen nominak ordaintzea onestea, 2024ko maiatza.
2024-315	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Langileen eta alkatearen nominak ordaintzea onestea, 2024ko maiatza.
2024-316	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.G.E.U.- 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-317	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Udalerriko partidu politikoek ekarpen ekonomikoa, 2024ko maiatza.
2024-318	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.I.U.M.- Hirigintza leheneratzeko espedientearen proiektua aurkezteko epea luzatzea.
2024-319	ALKATETZAREN DEKRETUA.-Harsco Metals Lycrete SA- Murgako industrialdean pabiloia gaitu eta lursaila urbanizatzeko obrarako baimena ematea eta obra hasteko baimenerako dokumentazioa eskatzea.
2024-320	ALKATETZAREN DEKRETUA.- O.M.O.- Basurdeak ehizatzen txakurrak hezitzeko zentroa jartzeko plan bereziaren espedientea behin betiko onespeneraren atzeraeragina, interesdunentzako jakinarazpena zuzentzeko.
2024-321	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.B.M. eta A.U.P.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Menagaraiko etxebizitza eraikitzen udalaren obra-lizentzia emateko.
2024-322	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Mugikortasuneko plataforma jarri eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onestea.
2024-323	ALKATETZAREN DEKRETUA.-Saltoki Araba SA Igerilekuearako hornidura-kontratua adjudikatzea.
2024-324	ALKATETZAREN DEKRETUA.- JA.G.U. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-325	ALKATETZAREN DEKRETUA.- E.C.O.M. SL 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-326	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ME.S.I. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.



2024-327	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Etxaurren Ikastola- Guraso-elkartea.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak onestea, 2024ko maiatza.
2024-328	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Udal-ibilgailua hornitzeko kontratuaren espedientea onestea.
2024-329	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Luiaondoko Administrazio Batzarra- Luiaondon edateko ura hornitzeko sarea eta hondakin-uren saneamendu-sareak berritzeko obrarako emandako udalaren obra-lizentzia iraungitzeko espedientea hastea.
2024-330	ALKATETZAREN DEKRETUA. – Harsco Metals Lycrete SA - Murgako industrialdean pabiloia gaitu eta lursaila urbanizatzeko obra hasteko baimena ematea.
2024-331	ALKATETZAREN DEKRETUA.-DO Gizarte Segurantzza- 2024ko apirileko kotizazioak ordaintzea.
2024-332	ALKATETZAREN DEKRETUA – C.M.B.- Biztanleen erroldako ofizioko baja, bidegabeko izen-emategatik.
2024-333	ALKATETZAREN DEKRETUA.- A.D.B. Kontratazio-zerbitzurako dokumentazioa eskatzea.
2024-334	ALKATETZAREN DEKRETUA- L.A.G.A. Udal-ondareari buruzko informazio-eskaera.
2024-335	ALKATETZAREN DEKRETUA. - D.M.A. eta F.J.E.G.- Madariako baserria birgaitzeko obretako eraikitzaileari buruzko informazioa berriz eskatzea, 2024/278 Dekretuaren jakinarazpenerako.-
2024-336	ALKATETZAREN DEKRETUA. - B.B.U. eta beste batzuk- Luiaondon bi familiako etxea eraikitzeko obrak (I. fasea - Urbanizazioa) hasteko baimena ematea.
2024-337	ALKATETZAREN DEKRETUA. Hornidura kontratatzeko agiriak aldatzeko.
2024-338	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Luiaondoko Administrazio Batzarra- Luiaondon edateko ura hornitzeko sarea eta hondakin-uren saneamendu-sareak berritzeko obrarako emandako udalaren obra-lizentzia iraungitzat jotzea.
2024-339	ALKATETZAREN DEKRETUA.- A.C.A. Llanteno Harana.- Lankidetzahitzarmeneko emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.
2024-340	ALKATETZAREN DEKRETUA.- F.J.D.G. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-341	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Q Izoria SL 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-342	ALKATETZAREN DEKRETUA.- S.L.U. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-343	ALKATETZAREN DEKRETUA.- E.R.G. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-344	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Aiarako kuadrilla Ekarpén ekonomikoa gastu orokorren eta bestelako gastuengatik, 2024ko 2. hiruhilekoa.



2024-345	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alday Fundazioa.-EALZeko kudeaketagatikoko dirulaguntza, 2024ko MAIATZA.
2024-346	ALKATETZAREN DEKRETUA.- DITECO INGENIERÍAri 2. poligonoko 592 zenbakiko partzelako ingurua berrezartzeko (betegarria) proiektuaren Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.
2024-347	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Fakturen kontularitzako F/2024/5 zerrenda onestea.

## 12.- Galde-eskeak.

- Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza alkateari hirugarren aldiz galdetzeko ea aukerarik izan duen Etxegoingo gaiari buruz hitz egin zen osoko bilkurako audioa entzuteko.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du esan duela berresten duela, lagatzeko aukerari buruz hitz egin zuela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza gaineratzeko gero alkate jaunak esan zuela ez zuela hori esan, eta gainera batzarraren bi idazki daude, Udalari obra egin zezala eskatuz.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta alkate jaunari eskatu dio grabaketak berrikus ditzala, eta hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dutela.

-Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza galdetzeko ea nola doan Estradako Batzarraren akordioa.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza aipatzeko haiekin hitz egiten egon direla, eta esan zuten maiatzaren amaieran proposamena bidaliko zutela. Haiekin hitz egin ostean, abeltzainei 2023koari lotutako isunak heltzen hasi zitzaizkien, nahiz eta kontratua sinatuta zegoen. Oharra egin zaio aholkularitza juridikoari errekursoak presta ditzan, bidaltzeko. Berriz haiekin hitz egin dute, eta hamabost egun gehiago eskatu dituzte. Gaineratu du uste duela Gaztela eta Leongo Batzarrean ez zutela hitzarmen horren berririk.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du iaz oso zaila izan zela haiekin akordioa lortzea, baina uste du hitzarmen hau abeltzainak babesten dituen tresna dela; hortaz, lan egin dezatela eskatu du, sinatu ahal izateko.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du iaz hitzarmena Marisolek idatzi zuela, baina Gaztela eta Leongo Batzarrak berrikusi ez zuen arte Estradako Batzarrak ez sinatu; hortaz, Gaztela eta Leongo teknikariek bazuten hitzarmenaren berri. Gaineratu du ekainaren hasieran basozainak egon direla, eta uste du isunak egongo direla.



-Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) hartu du hitza galdetzeko ea nola geratu diren Jolas Txokoak. Eta jakin nahi du zergatik bilera Arespalditzan egingo den, eta ez Luiaondon, bertan familia gehiago baitaude.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza erantzuteko bi talde daudela, Luiaondon eta Arespalditzan. Oraingoan astearen arabera antolatu da, eta koordinatzaile bat eta hiru begirale egongo dira. 27an bilera egingo da familia guztiekin, Arespalditzan, baina ez daki zer dela-eta erabaki den toki hori.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) San Prudencio eta San Isidroko jaietako gastuei buruz galdetu du, behin baino gehiagotan eskatu duelako, eta oraindik ez dizkiote bidali.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du oraindik ez dela guztia ordaindu; guztia argi dagoenean bidaliko diote.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Luiaondoko kale-izendegiari buruz galdetu du; aipatu du Aialurrekin digitalizazio-lana egin zela, eta kontzejuak ere aurrera egin du arlo horretan.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du Aialurri agindua egin diola lana amai dezala, baina kudeatzen egin den teknikaria bajan egon da.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du galdetuko duela eta idatziz erantzuteko eskatu du. Galdetu du ea bilerarik egin den Belardi Elkartearekin, dagoeneko Laudiok hitzarmena sinatu baitu haiekin bere abeltzainen onerako, eta hala izatekotan Udaleko nor bertaratu den. Gainera, jakin nahi du ea asmorik dagoen haiekin hitzarmena egiteko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz azaldu du hiltegiak animalia oso gutxirako edukiera duela, eta Laudiok abeltzain gutxi dituenaz, egin ahal izan dute, baina ez dute edukiera Aiarako abeltzainak artatzeko. Hala ere, gaineratu du, galdetuko du, eta erantzunaren berri emango du.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea batzarrek kontu guztiak aurkeztu dituzten jakiteko jarraipena egin den. Era berean, aipatu du batzarrek udal-sarreretan duen parte-hartzea arautzen duen ordenantzaren arabera, % 50 ordaindu behar du; hortaz, jakin nahi du hori bete den.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun dio begiratuko dutela eta erantzungo diotela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza aipatzeko ordenantza begiratuko dutela, kontuak aurkeztu ez dituzten batzarrei errekerimendua egingo zaiela, eta ordenantzan xedatutakoa beteko dela.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea kudeaketa egin den URArekin eta Konfederazioarekin, HUAen konturako.



Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du bilera batean egon zirela Aretan, eta esan zirela oraindik denbora behar zutela, eta beharbada Aiarakoa urtearen amaierarako egongo zela. Eta gaineratu du ez duela informazio gehiagorik.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du dagoeneko hori aipatu zutela, baina osoko bilkura hartan informazio gehiago eta funtzionamenduan jartzeko data zehatzak eskatu zituztela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza galdetzeko ea hitzarmenaren zenbatekoa ordaindu zaion Lantenoko Haraneko Arte Eskolari.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) baietz erantzun du.

-Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko ikastolan eskoletako azken eguna dela, eta galdetu du ea eskolarako mantentze-obrarik aurreikusita dagoen, hala nola ikasgelak margozteia edo lurra hobetzea, beste urte batzuetan udako hilabetetan egin baita.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko ezetz, patiokoa eta eguzki-plakena baino ez dela egingo; gaineratu du aurreko astean ikastolakoeekin egon direla eta ez dietela ezer helarazi horren gainean.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) haur-eskolan eta ikastolan matrikula egiteko datuak eskatu ditu.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko laguntza juridikoko zerbitzua 2020an adjudikatu zela, gehienez 4 urterako, eta galdetu du ea haiekin hitz egin den, jakiteko ea zein baldintzatan ematen jarraituko duen berriz adjudikatu arte.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erantzun du gogoan duela, baina oraindik ez du aurreratu arlo horretan.

- Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko badirudiela kontratuak lizitaziora ateratzeko lana aurten agertu dela Udalean, aurreko legealdian, Koldo Mendiorozek, EH BILDUKo zinegotziak, osoko bilkura batean esku hartu baitzuen adieraziz garbiketa-kontratua iraungita zegoela, luzapena guztiak amaituta, eta ea nolatan gertatu zen hori, konfinamendua ez baitzen aitzakia, administrazio-lana etxetik egiten jarraitu zelako. Esan zen arduradun bakarra gobernu-taldea zela. Dirudienez, aurreko legealdian justifikazioek ez zutela balio, ezta konfinamendu bat ere, baina legealdi honetan guztiak balio du, eta egokitu behar direla...

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du gaia azalduko duela, aurreko osoko bilkuran ez baitira eroso sentitu egondako egoeraren batekin. Idazki hau irakurri du:



“Aurreko legealdian, bizpahiru osoko bilkura baino gehiagotan, Aiara Batuzeko Iratxe Parro zinegotziak gobernu-taldeari azalpenak eskatu zizkion Ibaguengo futbol-zelaiaren inguruko pistaren zoladuraren egikaritze kaskarrari buruz.

Beraren arabera, pistaren zoladurarekin, peraltua aldatu zen, eta, ondorioz, pista hori ezin zen erabili ziklismoko saioak egiteko.

Zolatzetarako horretatik hainbat proba egin dira, eta finala aipatutako pista egin da.

Aurreko hilabetean idatziz Laudioko ziklismo elkarteak baimena eskatu zuen pista entrenamenduetarako erabiltzeko; uste dut hilabete honetako hasieran erabili zutela.

Parentesi txikia, idatziz erantzun zaie?

Jarraitzeko, badirudi egokia dela proben finalerako nahiz entrenamenduetarako.

Aurreko osoko bilkuran, Aiara Batuzek udal-hauteskundeetan zuen hautagai batek errespetua galdu zidan, Ibaguengo pista hondatzeagatik.

Nekatuta gaude inolako argudiorik gabe eman gabe egindako adierazpen eta errespetu-falteen; hortaz:

Eskatzen dugu:

Pistaren ardatzean lerrotutako lekukoak atera daitezela, gutxienez barnean eta kanpoan, baita erdian ere, horien arteko tartea neurtuz, bidaliko dizuedan marrazki baten arabera. Gu lasai gaude, badakigulako ondo egin zela, baina nazkatuta gaude adierazpenekin; beraz, eskatzen dugu lekukoak egin daitezela”.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko, aurreko osoko bilkuran geratutakoaren harira, amaitu zenean, jazoera eragin zuen pertsonari adierazi ziotela ezin zuela hori egin; gaineratu ados dagoela eskaerarekin, eta uste behar du lekuko horiek egin behar direla.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du partida aurrekontuen zirriborroan dagoela; beraz, oraindik ez da egin.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) honako idazki hau irakurri du:

“Aurreko legealdian, honetan bezala, gobernu-taldeak nahiz oposizioko taldeek aukera genuen udal-informazioa kontsultatu ahal izateko espedienteen kudeatzailetik eta sarrera- eta irteera-erregistroen aplikaziotik.

Aurreko legealdian ordenagailua gaitu zen administrazio-batzarretarako eta oposizioko partiduetarako, bigarren solairuan.

Behin hornidura-obra eginda, udal-informazioa eskuratu ahal izateko ordenagailua batzordeen gelara eraman zen.

Aurreko legealdian eta orainoan, erabiltzailea dugu udal-informazio guztia kontsultatu ahal izateko, Firmadoc izeneko espedienteen kudeatzaile baten bidez, eta baita sarrera-erregistroarako ere, Accede kudeatzailearekin.



Aurreko legealdian oposizioak eskura izatearen adierazle gisa, Iratxe eta biok elkarrekin egon ginen aldi guztiak ditugu, azaltzeko nola sartu eta nola erabili aplikazioa.

Hilabete hauetan, aplikazioa aldatzen ari da, Experta izeneko tresna berria erabiltzeko.

Egun hauetan, galdetu dugu ea zinegotziei prestakuntza emango zaigun, eta baietz erantzun diguten, baina itxaron behar zela. Horraino dena ondo.

Baina, harrিতa geratu gara asteartean, 11n, Karmele Población alkateordeak alkatezaren bulegora bertaratzeko esan zidala, gai bat eztabaidatzeko.

Alkatezaren bulegoan, Karmele Población, Izaskun García eta Pruden Otegi geunden.

\*Karmelek adierazi zigun aplikazioarekin bi aukera zeudela; lehenengoa, orain arte bezala jarraitzea, eta, bigarrena, aukeratu dutena, informazioa eskuratu ahal izateko eskatu beharko dugula, eta haiek emango digutela.

Ezin nuen esaten ari zuena sinetsi.

Aldaketaren zergatia aldatu nion, eta erantzun zidan haiek aurreko legealdian ere horrela egin behar zutela (dagoeneko azalduta zegoen nola eskura zitekeen udal-informazio osoa, Iratxe Parroren adibidearekin bezala), eta, noski, horrek lana eta dedikazioa eskatzen du... edo errazagoa da eskatzea bilatzea baino...

\*Izaskunek esan zigun “informazio asko genuela”, eta, hori txarra al da, Izaskun andrea? Jarraitu zuen eta esan zigun “guk baino informazio gehiago duzuela”, eta, hori noren errua da, Izaskun andrea? Ez al da izango guk denbora erabiltzen dugula oposizioaren lanerako, edo zuek ez duzuela denbora erabiltzen gobernuko lanerako? Ala biak? \*Ez dut alkatea aipatu ez zuelako ezer esan.

EZ dugu ulertzen zergatik, Udalak dituen tresnek, eta EZ gobernu-taldeak, orain arte bezala jarraitzen uzten baduten, ea zer dela-eta egin behar den aldaketa hori.

Izan daiteke oposizioa gogaikarria dela, eta birbideratzen saiatu behar direla...

Eh Bilduk aurreko hauteskundeetan honela zion propagandan:

Josu Artetxe: “Udalerrri honek aire berri eta garbia behar duelako”. Hau da zuen aire berria... eta garbia...

Aiara Batuzen propagandak honela zioen:

“Udalaren gardentasuna bermatzea parte-hartzeari, kudeaketari eta jarrerei Urbiden, Aiarako Kuadrillan eta Sierra Salvadako Ermandadean”

Noski, hor ez da oposizioa aipatze, ezta, Parro andrea?

Bi hilabetetik hona, alkateari altuerako eskokatzea, eskokatzearen kronograma eta Solariako bileraren power point-a eskatzen ibili gatzaizkio.

Gaur egun informaziorik gabe jarraitzen dugu. A priori erantzuteko hain erreza den zerbait... bi hilabete...

Horrela egin beharko dugu lan egunero... gai bat aztertzeko informazioa eskatzen dugun bakoitzean, bi hilabete itxaron beharko ditugu...

Askotan esaten digute Udalean lan asko dagoela, eta hori badakigu, baina batzuek orain deskubritu dute, eta jarduteko modua langileei lan-karga handiagoa ematea da...



Ezarriko dituzuen praktika horiekin, zuen asmo bakarra da oposizio aktibo bati lana eragozte, eta horrek herritarren interesak modu eraginkorrean ordezkatzeko dugun eginkizuna betetzea oztopatzen digu, bestela, zer dela-eta aldaketa hori? Ezin genuen berdin jarraitu?

Lan egiteko moduaren aldaketa horrek, oposizio giza dugun zeregina ahultzeaz gain, Udalaren funtzionamendu demokratikoa ere kaltetzen du, gardentasuna narriatuz.

Laburbilduz, Aiara Batuzek eta Eh Bilduk ezarriko duten aldaketa horrek oposizioak fiskalizatzeko eta herritarrak behar bezala ordezteko ahalmena kaltetzen du era oso larrian, eta eraso egiten dio gardentasunari”.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta aipatu du bera ez zela bilera horretan egon, baina Izaskun andrearekin hitz egin zuela eta esan ziola haiek aurreko legealdian espedienteak eskura zitzaketela kudeatzailearen bidez, baina ezin zuten etxetik egin, udaletxera joan behar zuten, eta hor alde handia dago etxetik egiteko aukerarekin.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du etxetik egiteko erosotasun hori lehenago egin ahal izan zela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du pandemiaren aurretik ezinezkoa zela kalkulu-zentroak ez zuelako ahalbidetzen, baina ondoren, telelana ezarri ondoren, hori egiteko aukera zegoen. Ez bazen egin, ez zutelako eskatu izan zen.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi andreak (EAJ-PNV) aipatu du bi kontu daudela, bata gardentasunarena, eta bere ustez hori bete behar da, eta bestea etxetik ikusi ahal izatearen erosotasuna. Bilera horretan aipatu izango balute sarbidea ematen zela baina etxetik ez, baizik eta udal-egoitzan, nahiz eta zentzugabekeria izango litzatekeen, ba aukera egongo litzateke sartu eta gardentasuna behar bezala bete ahal izateko; baina esan zutena izan zen informazioa eskuratu ahal izateko eskatu behar zutela, eta entregatu arte itxarotea, eta ez zutela sartzeko erabiltzailerik izango.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza aipatzeko aurreko legealdian ez zietela inoiz aipatu etxetik sartzeko aukera zegoela, horregatik ez zuten eskatu. Eta orain, Experta-ren kudeatzaile berriarekin, ez dago aukerarik kontsultetarako erabiltzaileak izateko, Firmadoc-en kasuan zegoen bezala, erabiltzaile guztiek kudeatzailearen rola dute, hori dela eta, alkateordearentzako erabiltzaile bakarra eskatu da, eta batzuetan sinatu beharko du. Horrez gain, eskatu da enpresak kontsultarako profila sortzea, guztiek kudeatzeko ahalmenarekin sar badaitezke, guztiek hanka sar dezaketelako.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du hanka sartzeko aukera berdinak dituztela oposizioko zinegotziek nahiz alkateordeak; hori dela eta, eskatu du guztiek izan dezatela Experta-rako sarbidea, aurreko legealdian egin zen bezala. Hori dela eta, eskatu du gobernu-taldeak hartutako erabaki hori birpentsatzea.





Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du bera aurreko legealdian ezin izan zela sartu, behin baino gehiagotan sartu zela eta ez zuela lortu, eta udaletxera joan behar zuela informazio bila. Gaineratu du ez ziola inork azaldu nola erabili Firmadoc kudeatzailea; hortaz, bere ustez, partiduaren arabera adierazitako jarrera ezberdina da. Gaineratu du kudeatzaile berri horrekin egin behar den lehenengo gauza informazioa ematea dela eta, kontsultarako profilak sortzen direnean, zer egin pentsatuko dutela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko Udaleko sarrera-erregistroan dokumentua dagoela maiatzaren 22an bilera egiteko Zuhatzako Bizitegirako Hiri-lurzoruarekin, Udalak bertan partzela duelako, eta galdetu du ea norbait bertaratu den.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du ez duela ezer jaso orri buruz, aurrerago emango duela horren berri.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du sarrera-erregistroek guztiek jasotzen dituztela, eta, berak irakurri badu, gainerakoek ere aukera bera izan dutela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko uztailaren 15ean obra txikietarako dirulaguntza eskatzeko epea amaituko dela. Gaineratu du haiek eskatu zutela ikastolako irisgarritasuna hobetzeko eska zezatela. Aiara Batuzekoek aipatu zuten begiratzen ari zirela osoko bilkuren aretoan esku-hartzeren bat egiteko, baina xehetasun gehiagorik eman gabe; beraz, adierazi du, hori hala bada, akustika hobetzeaz gain, osoko bilkurako aretoan osoko bilkurak streaming bidez emateko behar den azpiegitura instalatzeko erabili dadila.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko osoko bilkuren aretoan obra egiteko aukera aztertzen ari zirela, baita erabili gabe dagoen parkea ere birgaitzekoa; azkenean parkea egokitzeko obrarako eskatzea erabaki dute. Gaineratu du arkitekto teknikoak memoria prestatuko duela, dirulaguntza eskatzeko.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko ekainaren zazpian ikusi dutela aurrekontua eskatu dela ikastolako eta pistako plaken obrako zuzendaritzarako. Hori dela eta, galdetu du ea aurrekontuak jaso dituzten, ea nori eskatu dizkieten, eta dagoeneko adjudikatu diren.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du ikastolako plakaren zuzendaritzako bakarrak eskatu dela. Proiektuari idatzi zuen berari eskatu diote, eta zenbatekoa bi mila euro ingurukoa da.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza galdetzeko ea maila politikoan bilerarik egon den Tokiko Administrazio Sailarekin, udal-idazkaria ordeztzeko kontua kudeatzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) ezetz erantzun dio.



- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko ikusi dutela gimnasiako erabiltzaileek eskaerak egin dituztela, lokala erabiltzen jarraitu ahal izateko, eta garbitzearekin nahikoa dela, haiek ordainduko dutela irakaslea. Galdetu du ea erantzun dieten.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun du haiekin harremanetan jarri zela eta Udalaren kontratua maiatzaren amaieran amaitzen zela, eta Administrazio Batzarrarekin harremanetan jar zitezela, lokala Batzarrarena baita. Luiaondoko eskaerari dagokionez, ez dute harremanetan jartzeko modurik izan, ez dutelako daturik utzi; Administrazio Batzarrarekin hitz egin dute, eta aipatu zien zerbait behar izatekotan berarekin harremanetan jartzeko, baina ez dute deitu.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) honako idazki hau irakurri du:

“Ekainaren 17an urtebete bete zen Aiara Batuzeko botoek hirugarren indar politikoa Aiaran alkatetzara eraman zutenetik.

Egun batzuk lehenago hedabideetan irakur genezakeen ezinezkoa izan zela adostasuna lortzea “harremanak ez baitziren guztiz errazak eta emankorrak izan”, “aldatzeko bat-bateko eskaintza horrekin konfiantza narriatu zutela, gainera arloen banaketari lotua bakarrik heldu dela...”.

Guzti horren aurretik, hauteskunde-kanpaina egon zen, urtebete ondoren lohitsuia izan zela esan genezakeena, gaur egun politikan borborrean dagoena (eta Aiara Batuzen arabera, haiek egiten ez dutena).

Hauteskundera baino pixka bat lehenago eta horrek iraun bitartean, Aiara Batuzek, edo, hobe esanda, Iratxe Parrok, erreferentziazko ospitalearen aldaketaren erabakia leheneratzeko eskatzeko kontzentrazioak abiarazi zituen. Kontzentrazioak ostiraletan, Amurrioko anbulatorioan, kontzentrazioak oso deigarriak ziren kamisetekin San Prudentzio eta San Isidroko jaietan... Hori guztia, Aiara Batuzek Pruden Otegui alkate izendatu zuen arte.

17an hori guztia amaitu zen, Iratxe Parrok dagoeneko helburua lortu zuen: EZ alkate bihurtzea, baizik eta EAJ alkatetzatik ateratzea. Ez zen kontzentrazio gehiagorik egon, eta jaietako kamisetak desagertu ziren. Eta, alkatearen hitzetan, egoera “stand by”en dago. Ba ez, urtebete genuen egoera berean gaude, Osakidetzan bi bilera eginda eta lehen arretaren ikuspuntutik zerbitzua okertuko zuen mediku buruaren erabakiarekin.

Baina dagoeneko EAJ kenduta zegoen. Inbestiduran publikoko norbaitek esan zuen arabera, “horrekin bakarrik merezi izan zuen”.

Tira ba, hemen gaude urtebete ondoren, eta, zer dugu ba? Gobernu berri bat, eta ez dakigu zein akordio duen taldeen artean edo udalerrirako duen proiektua. EZ dugu bere ibilbide-orria ezagutzen.

Hori bai, bere burua aldaketaren gobernu gisa saltzen zuen.

Eh Bilduren aldaketa, zeinak osoko bilkuretan desberdin bozkaten duen oposizioan zegoenean baino, eta Aiara Batuzena, zeinak aurreko legegaldian mahaigaineratzen zituen erreklamazio guzti horiek ahaztu dituen.

Urtebete geroago, 2024ko aurrekontuaren zirriborrorik ez duen udalerrria dugu, gehiengoaren gobernuarekin gure udalerrian guztiz berria dena; ekainaren 20an gaude eta ez dugu aurrekontuen zirriborrorik. Eta hori 2023ko kontu orokorra oraindik onetsi gabe dagoela ez aipatzearren, eta zerrenda luzatuz doa...

Administrazio lanpostuaren EEP prozesua bere erritmoarekin doa... alkateordeak maiz esaten duen moduan, Udalean lan asko dago eta...



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Gobernu honek, bere kudeaketarekin, lortu du igerilekuak uztailean eta abuztuan ordu erdi lehenago itxita egotea... hori bai, alboko udalerrietan ere horrela denez...

Gobernu honetan, alkateari galdera bat egiten diozunean, begiradak hasten dira, nork erantzungo duen jakiteko, alkateordeak, Iratxe Parrok edo Izaskunek erantzun behar duen, kontua berea delako... Gobernu honetan, zati batek beren programan sartuta du Arespalditzako kolunpio berriak estaltzea (dagoeneko obra prestatuta dago egikaritze-fasetik), eta gobernuaren beste zatiak ezetz dio...

Eta horri, Plan Orokorrari buruz ez hitz egitearren, maiz galdetzen dugu-eta horren inguruan. Izan ere, urtebete igarota, ez dugu bilera edo aurrerapen bat ere izan.

Laburbilduz, bi alderdi gobernu bakarrean, programa komunik izan gabe, interes komun bakararekin”.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza aipatzeko Aiara Batuz gai horretatik kanpo geratzen dela, aldarrikapen horiek Lantenoko Administrazio Batzarreko zinegotzi Iratxe Parrok hasi baitzituen, kontzejuetan erabakitzen dena aurrera ateratzen baita. Eta gaineratu du, kamisetak eta protestak maiatzaren 15ean amaitu ziren, zinegotziak Galdakaoko deia jaso zuenean.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta adierazi du dei horren ondoren aldaketarik gabe jarraitu dutela gaur egun arte.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du bilera gehiago egon direla, eta orain gobernu berria eratzearen zain daudela.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeita bata eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita lauko ekainaren hogeian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.